

① ELHEKETA. ASTE HUNTAKO ELHEPIDEA.

1. Zertako elika zen Joanes?
2. Zerek erakusten dauku elika dela?
3. Zuen ustez zerek emandio barneko mina?

IRETSI... HORTZAK? A.

Joanes zuen izena; gizon ona, maitea ezin gehiago. Ahotik zer nahi ikusirik, bere haginak oro Irigoin demuntre hari utzi ziozkan Baionan, eta herrirat itzuli zen, egun batez, hortz berri eder batzuekin.

Orduko xaal edo aratxe baten saria gosta zitzaizkon, baina zer munta zuen hura bezalako etxeko jaun batentzat? Gosta zitzaiona zer zen, haren oraiko loriaren aldean? Bertze gizon bat egina zen eta! Ordu arte, ilhun trunko hetarik ez izana gatik, irria frango xuhur zuen; eta orai, irriz laket zitzaion, bere hortz ederren erakusteko baizik ez bazen ere. Hala, hala, zinez ederrak zituen Irigoinek eman hortzak! Xuriak, legunak, ia' bezen xuxenak. Badut uste auzoak bekhaizti zituen. Etxeko xakurrak, bethi nausiaren hortzak ikusi eta, bereak erakusten zituen, mur mur mur, kirrika² batean. Hura ederren bekhaizti zela, gauza segura.

Eta Joanesen janiza¹ orai! Lehenago, milinga¹ batean, gauza hobereenak doi doia hunkitzen baizik ez zituen; eta orai, orotarik jaten, eta orok on egiten, futxo!

Loriaren erdian igeri bizi zen beraz Joanes. Arrats guziez, bere hortz benedikatuak, ongi garbiturik emaiten zituen ohe buruan eta biharamun goizean gero, berriz ahoan, amets goxonak lorik goxoenean eginik.

Hoik oro sobrakinak. Nik ez dakit nungo sorgin zaharra han iraganik, goiz batez, iker eta iker, mia eta mia ari zen Joanes. Hortzak, hortz xarmatuak nihon ez ageri!... Erhoturik zoko guziak azpiz gora emanak zituen. Hortzik nihon ez bethi ageri! Mariaño, bere sehi zaharra ethorririk, eman ziren biak ohe azpiak eta oro ikertzen. Baina debalde.

Orèñ baten buruan bezala, etsitu zen Joanesek. Zer debrakeria baitzen ere han, hortzak galduak ziren, eta ontsa galduak. Eta bizkitartean, bethiko beren tokian ez zituena bada, tharekin altxatuak, bezperan?...

Kexu ziren beraz bazterrak, eta Mariaño ikharan egon zen egun hartan guzian, odolak bururat eginen othe zionez nausiarri.

Ez zion odolak bururat egin, baina bai hertzetarat, eta arratsean, barneko min bat bazuen Joanesek, mixteriozkoa. Tillula eta malba edan eta edan, harat hunat bazabilan ganbaran, selauruan¹, sukaldean, arima herratua bezala. Bere hortz eskastu hek bethi gogoan —bainan zongaitzez, ez orduan ahoan— urrikaltzeko ere zen, zinez eta minez. Lau hogoi urtheke atxo bat iduri zuen, bere ezpain sartu ximurtuekin, eta erranen zintuten, garbiki, orenetik orenera ximeltzen ari zitzaizkola ezpain hek. Xakurrak, bere mahain zokotik, ez zion gehiago behatzen ere. Eta auzoek? Ez zioten gaizki irri egin behar, ondoko egunetan!...

Eta sabeleko edo hertzetako min hura bethi han, ez batere eztatzen! Sekulan ez eta, gaur, holako mina lothua, bet betan, hortz xarmatu hek galdu orduko, eta erran ziteken kasik, hek galdu zirelakotz!... Ez ahal zituen bederen...? Bai! zera! Iretsi hortzak! Bazuena bertzenaz burutik?

③ ADITZ IKASKUNTZA.

31. Gosta zitzaizkon 32 Othe zionez
33. Bazabilan 34 Erran ziteken.

IZAN- Regime indirect. Indicatif. Imparfait.
Hek ziren = ils étaient.

Hek (eus) Zitzazkitan (à moi) = ils m'étaient
Zitzazkitun (à vous) = ils vous étaient
Zitzazkiton (à lui) = ils lui étaient
Zitzazkitun (à nous) = ils nous étaient
Zitzazkituen (à vous) = ils vous étaient
Zitzazkitien (à eux) = ils leurs étaient

32. UKAN- Conjugaison à double complément.
Indicatif Imparfait.

Hari = à lui

Nik nion = je le lui avais
Zuk zinion = vous le lui aviez
Harek zion = il le lui avait
Guk ginion = nous le lui avions
Zuek zinioten = vous le lui aviez
Heiek zioten = ils le lui avaient

33. IBILI = Indicatif Imparfait.

Ni mindabilan = je marchais
Hi indabilan = tu marchais
Zu zinabiltzan = vous marchiez
Hura zabilan = il marchait
Gue zinabiltzan = nous marchions
Zuek zinabiltzaten = vous marchiez
Hek zabiltzan = ils marchaient